

HEZKUNTZA PROIEKTUA

Bermeon, 2018ko urtarrilaren 25ean

Dakizuen moduan, ikasturte honetan Ikastolako Hezkuntza Proiektua berridazten gabiltza. Horretarako batzar orokor bat egin genuen Azaroaren 30ean eta bertaratutakoen artean eratu genuen talde eragilea. Talde eragilea, gure Hezkuntza Komunitateko agente guztiakin eratu dugu, guztion partehartzea beharrezkoa dugu eta (ikastola, guztiok eratzen dugulako). Azpitaldeak hauek dira:

- ✓ Haur Hezkuntzako gurasoak
- ✓ Lehen Hezkuntzako gurasoak
- ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gurasoak
- ✓ Haur Hezkuntzako irakasleak
- ✓ Lehen Hezkuntzako irakasleak
- ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
- ✓ Hezkuntza Bereziko langileak
- ✓ Langile ez dozentekak
- ✓ Zuzendaritza



Aurton ELEIZALDE IKASTOLAKO GURASOOK, hezkuntza komunitatearekin batera, **IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA BERRIDAZTEKO AUKERA** dugu!

Ikastetxeko helburuak eta lanerako ardatzak definitzen dituen dokumentua sortzera goaz.

Honen emaitzak, **GURE SEME ALABEN ETORKIZUNA** baldintzatuko dute.

Horregatik ZURE-GURE PARTE HARTZEA ezinbestekoa dela uste dugu.

Oraingoan HELBURUAK definitzeko batzarra izango da.

AZPITALDEA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
HHko gurasoak	URTARRILAK 29	17:30	Ikastola (liburutegia)
LHko gurasoak	OSAILAK 2	17:30	Kultur Etxea (2.1 gela)
DBHko gurasoak	URTARRILAK 29	18:00	Kultur Etxea (2.1 gela)

OHARRA LH: 6 urtetik gorako umeek udal ludotekan parte hartzeko aukera izango dute

Animatu eta etorri!

Denon artean etorkizuna eraikitzen goaz!

Hezkuntza Proiektuko Talde Eragilea